Eskariak osatzeke baldin badaude, 10 eguneko epea izango da falta dena osatzeko, eta epe hori eskaria osatu gabe igarotzen bada, artxibatu egingo da eskaera, beste inolako izapiderik egin gabe.

Aurreikusitako proiektu kopurura iritsi ezean, eta lerro honetara bideratutako partida agortu bitartean, udalak aukera izango du aurkezpen epea luzatzeko.

*4. Ekarri beharreko agiriak.*

Eskabideekin batera, Zumarragako Udalak ezarritako eta 2023ko otsailaren 10eko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN (28. zk.) argitaratutako Dirulaguntzen Programen Oinarri Arautzaileen 6. artikuluan ezarritako dokumentazioa aurkeztu beharko da.

6. artikuluak ezartzen duen bezala, espedienteak izapidetzen diren bitartean, udalak dokumentazio hau eskatuko die gainerako administrazio publikoei (Administrazio Prozeduraren 39/2015 Legearen 28.2 artikulua), datuen elkarreragingarritasunerako Nisae plataformaren bidez:

— Pertsonaren eta/edo erakundearen nortasun-datuak kontsultatzea eta egiaztatzea.

— Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekiko betebeharrak eta ordainketak egunean dituen kontsultatzea.

— Dagokion foru-ogasunarekiko betebeharrak eta ordainketak egunean dituen kontsultatzea.

— Sustatzaile bakoitzak Gizarte Segurantzan Autonomoen Araubidean edo baliokidean alta emanda dagoela egiaztatzea.

Zumarragako Udalak berak ofizioz eskatuko du honako hauek egiaztatzen dituen informazioa:

— Zumarragako Udalarekin zergen eta zehapenen ordainketa egunean izatea.

— Dirulaguntza ordaintzeko kontu-korrontearen zenbakia, lehenago jakinarazi badu.

Interesdunak eskubidea du Zumarragako Udalak gainerako administrazio publikoetan agertzen diren datuak Nisae elkarreragingarritasun-plataformaren bidez eskuratzearen aurka egiteko (Administrazio Prozeduraren 39/2015 Legearen 28.2 artikulua).

Kasu horretan, onuradunak aurka egiteko arrazoiak justifikatu beharko ditu, eta dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu (Datuak Babesteko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 21. artikulua).

Gainera, honako dokumentazio hau jaso beharko dute:

— Negozio-/bideragarritasun-plana, non jasoko baitira jarduera gauzatzean sortutako gastuen zerrenda edo aurrekontu xehatua (Bideragarritasun-plana UGGASA eskualdeko garapen-agentzian, Gipuzkoako Merkataritza Federazioan, ASLEn eta abarretan egin daiteke, inolako kosturik gabe).

— Belaunaldiak ordezten diren kasuan, egungo negozioaren bideragarritasuna frogatu beharko da, dagozkion erakundeekiko elkarlanean prestatutako beharrezko dokumentazioa aurkeztuta (finantza atala, egitura atala, sektorekoa, etab.); horrekin batera, negozioa eskualdatzeko edo negozioari jarraitasuna emateko proposatzen den negozioaren oinarrizko datuak jasotzen dituen fitxa aurkeztu beharko da (zer sektoretakoa den, enpresaren antzinatasuna, langile kopurua, kokapena, bezero-zorroa, etab.). Positiboki baloratuko da negozioa modernizatzeko eta duen errentagarritasuna hobetzeko plan bat prestatzea. Negozio bideragarri bati jarraitasuna ematen dioten ekintzaileak izango dira apartatu honi lotutako diru-laguntzetarako aukera izango duten bakarrak.

— Lan merkatura iristeko zailtasun handienak dituzten kolektiboetakoren batekoa izatea justifikatzen duen dokumentazioa, hala behar denean.

En el caso que las solicitudes estuvieran incompletas, se concederá un plazo de 10 días para la reparación de la carencia y, una vez transcurrido este plazo sin que se haya completado la solicitud, se procederá al archivo de esta sin más trámites.

En caso de no alcanzar el número de proyectos previstos y mientras no se agote la partida destinada a esta línea, el Ayuntamiento se reserva la posibilidad de ampliar el plazo de presentación.

*4. Documentación a aportar.*

Las solicitudes deberán ir acompañadas de la documentación establecida en el artículo 6 de las Bases Reguladoras de los Programas de Subvenciones establecidos por el Ayuntamiento de Zumarraga y publicadas en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 28 de 10 de febrero de 2023.

Tal y como establece el artículo 6, durante la tramitación de los expedientes, el Ayuntamiento recabará del resto de Administraciones Públicas (artículo 28.2 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo), a través de la plataforma de interoperabilidad de datos Nisae, la siguiente documentación:

— Consulta y verificación de datos de identidad de la persona y/o de la entidad.

— Consulta de estar al corriente de obligaciones y pagos frente a la Tesorería General de la Seguridad Social.

— Consulta de estar el corriente de obligaciones y pagos frente a la Hacienda Foral correspondiente.

— Comprobación de alta en la Seguridad Social en el Régimen de Autónomos o equivalente, de cada una de las personas promotoras.

Será recabada directamente de oficio por el propio Ayuntamiento de Zumarraga, la información que acredite:

— Estar al corriente del pago de tributos y sanciones con el Ayuntamiento de Zumarraga.

— El número de cuenta corriente para el pago de la subvención si ya lo hubiera comunicado anteriormente.

La persona interesada tiene derecho a oponerse al acceso, a través de la plataforma de interoperabilidad Nisae, por parte del Ayuntamiento de Zumarraga a los datos que figuren en el resto de Las Administraciones Públicas (artículo 28.2 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo).

En ese caso, el beneficiario deberá justificar las razones de su oposición y aportar los datos o documentos correspondientes (artículo 21 del Reglamento (UE) 2016/679 de Protección de Datos).

Además, deberán contener la siguiente documentación:

— Plan de negocio/viabilidad, donde se incluya el presupuesto detallado o la relación de gastos ocasionados en la ejecución de la actividad (existe la posibilidad de realizar el Plan de Viabilidad en la agencia de desarrollo comarcal UGGASA, en la Federación Mercantil de Gipuzkoa, en ASLE, etc. sin coste alguno).

— En el caso de relevo generacional: se deberá demostrar la viabilidad del negocio actual, presentando la documentación necesaria y elaborada en colaboración con las entidades correspondientes (apartado financiero, estructura, sectorial, etc.) y una ficha con los datos básicos del negocio elegido o propuesto para esta transmisión o continuidad de negocio (a que sector pertenece, antigüedad de la empresa, número de trabajadores, donde está ubicado, cartera de clientes, etc.). Se valorará positivamente la elaboración de un plan para la modernización y mejora de la rentabilidad del negocio. Serán exclusivamente las personas emprendedoras que den continuidad a un negocio viable quienes puedan acceder a las subvenciones vinculadas a este apartado.

— Documentación justificativa de pertenecer a alguno de los colectivos con mayores dificultades de acceso al mercado laboral, cuando proceda.

EK\CV GAO-I-2024-01178

— Enpresa sortuak berrikuntza irizpideei jarraitzen diela eta Zumarragako herriari balio erantsia dakarkiola justifikatzen duen eranskina, hala dagokionean.

— Kontuan har daitekeen beste edozein dokumentazio, laguntza emateko irizpideekin lotua betiere.

*5. Erabakia.*

Ekonomia Sustapeneko, Toki Garapeneko eta Berrikuntzako sailak izapidetuko ditu eskabideak. Sail horren zerbitzu teknikoak arduratuko dira dagozkion proiektuak aztertzeaz eta ebaluatzeaz, eta balorazio-txostena egingo dute.

Erabakia Zumarragako Udaleko zinegotzi ordezkariaren dekretu bidez ebatziko da, txosten teknikoak proposatuta.

*6. Eskabideak baloratzeko irizpideak.*

Proiektua onartua izan dadin, jarraian zehaztutako irizpideak aplikatuko dira, eta gutxienez 25 puntu lortu beharko dira.

— Establezimenduaren kokapena: merkataritza-ardatzean edo bezeroak kokapenera erakartzeko potentziala (5 puntu).

— Proiektuaren irismena eta bideragarritasuna: proposamen teknikoa, proiektuaren kalitatea eta diseinua, merkatu solidoaren azterketa eta eskariaren azterketa, negozio-plan xehatua (10 puntu).

— Komunitatean duen eragina: tokiko enplegua sortzea eta udalerriaren garapen ekonomikoari laguntzea (10 puntu).

— Lehiakortasun digitala: marketineko eta sustapeneko tresnak eta estrategiak –RRSS, web eta abar– (5 puntu).

— Berrikuntza eta bereizketa: bezeroentzako produktu, zerbitzu edo esperientzietan proposamen berritzaileak (10 puntu).

— Euskararen presentzia proiektuan (5 puntu).

*7. Eman beharreko dirulaguntzen gehieneko zenbatekoa eta diru kopuru horren izaera.*

Diru-laguntzen deialdi hau gauzatzera bideratutako zenbatekoa ZumarragarEKIN Diru-laguntzen Programaren barruan dago, ZuEKIN Merkatari linean. Zenbatekoa 3.000 eurokoa da, 2024ko ekitaldiari dagokionez.

7.1. Laguntzaren emateko gehieneko zenbatekoa izango da:

— 1.500 euro, 1. puntuan deskribatutako enpresa berri bat sortzeagatik edo belaunaldien arteko ordezteagatik, betiere balorazio-irizpideetan gutxienez 25 puntu lortu baditu.

— 700 euroko igoera, enpresa sortu berriak ekintzaileren bat baldin badauka (Gizarte Segurantzan dagokion araubidean alta emanda) eta lan merkatuan sartzeko zailtasun handienak dituzten kolektiboetako batekoa baldin bada (emakumeak, 55 urtetik gorakoak, 45 eta 54 urte bitartekoak, 35 urtetik beherako gazteak bere lehen enplegura iristen direnean, iraupen luzeko langabezian dauden pertsonak, Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duten pertsonak edo dibertsitate funtzionala duten pertsonak).

— 800 euroko igoera, Merkataritza Berpizteko Plan Bereziak jasotzen dituen ardatzen barnean berrikuntza irizpideetan oinarrituta sortzen diren eta Zumarragako herriari balio erantsia dakarkioten enpresen kasuan:

a) Egungo merkatu edo gizartearekiko balio diferentziala.

b) Erabilera intentsiboa, jakintza edota berrikuntza.

c) Inaziotar Bidearen sustapena.

d) Zumarragako Ospitalearekin lotutako zerbitzuak/merkataritza.

Laguntza, guztira, eta izan ditzakeen gorakadak ere barne, 3.000 eurokoa izango da enpresako, gehienez. Diru-laguntza kalkulatzeko, fakturen batura hartzen da kontuan, BEZ kenduta.

— Anexo justificativo de que la empresa creada tiene criterios de innovación y aporta valor añadido al municipio de Zumarraga, cuando proceda.

— Cualquier otra documentación que pueda tenerse en cuenta teniendo en cuenta los criterios de concesión de la ayuda.

*5. Resolución.*

Las solicitudes serán tramitadas por el departamento de Promoción Económica, Desarrollo Local e Innovación, cuyos servicios técnicos serán los encargados del examen y evaluación de los proyectos correspondientes, emitiendo un informe de valoración.

La resolución de la concesión se realizará a través de Decreto del o de la concejala delegada del Ayuntamiento de Zumarraga a propuesta del informe técnico.

*6. Criterios de valoración de las solicitudes.*

Para que el proyecto sea admitido, se aplicarán los criterios detallados a continuación, y se deberá obtener un mínimo de 25 puntos.

— Situación del establecimiento: eje comercial o alto potencial de atracción de clientes a la ubicación (5 puntos).

— Alcance y viabilidad del proyecto: propuesta técnica, calidad y diseño del proyecto, estudio de mercado sólido y análisis de la demanda, plan de negocios detallado (10 puntos).

— Impacto en la comunidad: generación de empleo local y contribución al desarrollo económico del municipio (10 puntos).

— Competitividad digital: herramientas y estrategias de marketing y promoción –RRSS, web etc– (5 puntos).

— Innovación y diferenciación: propuestas innovadoras en productos, servicios o experiencias para los clientes (10 puntos).

— Presencia del Euskera en el proyecto (5 puntos).

*7. Importe máximo subvenciones a conceder y carácter de dicha dotación.*

La cantidad destinada a la ejecución de la presente Convocatoria de Subvenciones se enmarca en el Programa de Subvenciones ZumarragarEKIN en la línea ZuEKIN Merkatari, cuyo importe asciende a 3.000 € correspondiente al ejercicio de 2024.

7.1. El importe máximo de la ayuda que podrá concederse será:

— 1.500 € por la creación de nueva empresa o relevo generacional descrita en el punto 1, siempre y cuando haya obtenido el mínimo de 25 puntos en criterios de valoración.

— Incremento de 700 € en el caso de que la empresa de nueva creación cuente con alguna persona emprendedora (con alta en el Régimen correspondiente de la Seguridad Social) y pertenezca a algún colectivo con mayores dificultades de acceso al mercado laboral: mujeres, mayores de 55 años, personas en la franja de edad entre 45 y 54 años, jóvenes menores de 35 años que accedan a su primer empleo, personas en desempleo de larga duración, personas perceptoras de la Renta de Garantía de Ingresos o personas con diversidad funcional.

— Incremento de 800 € por empresas creadas en base criterios de innovación, enmarcado dentro de los ejes del Perco, y aporte valor añadido al municipio de Zumarraga.

a) Valor diferencial respecto al mercado o la sociedad actual.

b) Uso intensivo, conocimiento y/o innovación.

c) Promoción Ruta Ignaciana.

d) Servicios/comercios relacionados con el Hospital de Zumarraga.

El total de la ayuda, incluidos los posibles incrementos añadidos será de un máximo de 3.000 € por empresa, para el cálculo de la subvención se considera la suma de las facturas deducido el IVA.

EK\CV GAO-I-2024-01178

Laguntza ekonomikoak emate honetan, aurrekontuko kreditua agortu ondoren ere erantzun gabeko eskaerarik baldin badago, eta betiere organo eskudunak horrela erabakitzen badu, diru-laguntzak jasotzen dituen aurrekontuko partida handitu ahal izango da, hain zuzen erabaki gabeko eskaerei erantzun ahal izatearren.

Laguntza horiek bateragarriak izango dira beste edozein administraziotatik edo erakunde publiko zein pribatutatik (nazionalak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko erakundeetakoak) helburu bererako datozen gainerako diru-laguntza, laguntza, dirusarrera edo baliabideekin, betiere diruz lagundutako jarduerararen kostua gainditzen ez bada.

Era berean, diru laguntza lerro bakoitzeko soberakinak zenbatekoa handitu behar duten lerroetara mugitu ahal izango dira.

Diru-laguntza lerro honetako laguntzak eta Zumarragako Udalak gazteen autonomia eta emantzipaziorako dituen laguntzak eskatuz gero, ezin izango dira diru-laguntza bietan gastu berberak aurkeztu, esaterako, lokalaren errenta, proiektua egiteko gastua, tasak, etab.

*8. Dirulaguntza ordaintzeko era eta epeak. Aurrerakinen aukera.*

Diru-laguntzak bi zatitan ordainduko dira:

— Onartu den kopuruaren % 60, justifikatu beharreko aurrerakin gisara, onuradunak emandako diru-laguntza onartu eta gero eta gehienez ere hil bateko epean, akordioa hartuko den egunetik kontatzen hasita.

— Gainerako % 40, organo eskudunak diru-laguntzaren likidazioa onartu eta gero, hau da, diruz lagundutako programa edo jardueraren dokumentazioa eta justifikazio osoa eta zuzena entregatu eta gero.

Aurkeztutako likidazioa hasieran aurkeztu ziren gastuen aurrekontua baino txikiagoa izanez gero, gutxitu egingo da diru-laguntza benetan burutu den portzentaje mailara.

*9. Hasiera eta exekuzio epea eta dirulaguntza justifikatzeko epeak eta erak.*

Diruz lagun daitezkeen jarduerak hasteko eta amaitzeko epea 2023ko azaroaren 1etik 2024ko urriaren 31ra egindakoak izango dira, biak barne.

Onuradunak 2024ko azaroaren 25ra arteko epea izango du, eman zitzaion diru-laguntzaren xedea bete duela justifikatzeko.

Onuradunek, diru-laguntzaren xedea justifikatzeko, oinarri orokorretako 18. artikuluan eskatzen den dokumentazioaz gain honakoa aurkeztu beharko dute Herritarren Harrera Zerbitzuko Bulegoan:

— Diruz lagundutako jarduerako gastuen zerrenda sailkatua, hartzailea eta dokumentua, zenbatekoa, dokumentuaren jaulkipen data eta, hala dagokionean, ordainketaren data ere adierazita (emandako diru-laguntzaren % 100 justifikatu beharko dute fakturek).

— Faktura originalak edo konpultsatuak.

— Jarduera sailkatuaren lizentzia, hala dagokionean, eta jardueraren aurretiazko komunikazioa.

Eskatzaileak laguntza-eskabidean bertan justifikaziorako eskatutako dokumentazioa aurkeztu badu, laguntza-eskaera bera joko da justifikazio-agiritzat, eta ez du berriz aurkeztu beharko.

Adierazitako epean justifikaziorik eta txostenik ez badago, automatikoki baliogabetuko da, edo diruz lagundutako eta justifikatu gabeko zenbatekoa itzuli beharko da, eta, nolanahi ere, dirulaguntza berriak emateko desgaikuntza ezarriko da.

*10. Jakinarazpena.*

Erabakien jakinarazpena, Oinarri Arauetako 11. artikuluan zehaztu bezala, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta banakako jakinarazpenak ordezkatuko du.

En este régimen de concesión de ayudas económicas, si una vez agotado el crédito presupuestario existen solicitudes sin atender, y en el caso de que así se acuerde por el órgano competente, se podrá ampliar la partida presupuestaria a la que están imputadas las subvenciones para atender las no resueltas.

Estas ayudas serán compatibles con el resto de las subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales o de la Unión Europea o de organismos internacionales siempre que no se rebase el costo de la actividad subvencionada.

Asimismo, se podrán mover los excedentes de cada una de las líneas de subvención a aquellas líneas que necesiten ampliar la cuantía.

En caso de solicitar las ayudas de esta línea de subvenciones y las ayudas a la Autonomía y emancipación de los jóvenes del Ayuntamiento de Zumarraga, no se podrán presentar los mismos gastos en ambas subvenciones como el alquiler del local, elaboración de proyecto, tasas, etc.

*8. Forma y plazos de abono de la subvención. Posibilidad de anticipos.*

Las subvenciones se harán efectivas en dos plazos:

— 60 % de la cantidad aprobada, en concepto de anticipo a justificar, una vez aceptada por la persona beneficiaria la subvención concedida y en el plazo máximo de un mes contado a partir de la adopción del oportuno acuerdo.

— 40 % restante, una vez aprobada por el órgano competente la liquidación de la subvención, esto es, con posterioridad a la entrega de la documentación y justificación completa y correcta de la subvencionada.

En el supuesto de que la liquidación presentada fuera por importe inferior al presupuesto de gastos inicialmente presentado, se minorará la subvención al porcentaje realmente ejecutado.

*9. Plazo de inicio y ejecución y forma de plazo de justificación del destino de la subvención.*

El plazo de inicio y fin de las actuaciones subvencionables será desde el 1 de noviembre de 2023 hasta el 31 de octubre de 2024.

El plazo de justificación por parte del/la beneficiario/a del cumplimiento de la finalidad para la que se concedió la subvención finalizará el 25 de noviembre de 2024.

Para justificar el objeto de la subvención, los beneficiarios, además de presentar la documentación requerida en el artículo 18 de las bases generales, deberán aportar la siguiente documentación:

— Una relación clasificada de los gastos de la actividad subvencionada con indicación del acreedor y del documento, su importe, fecha de emisión y en su caso fecha de pago (Las facturas deberán justificar el 100 % de la subvención concedida).

— Facturas originales o compulsadas.

— Licencia de actividad clasificada, en su caso y comunicación previa de actividad.

En el caso de que el solicitante haya aportado la documentación solicitada para la justificación en la propia solicitud de ayuda, se entenderá la propia solicitud de ayuda como documento justificativo y no tendrá que volver a presentarla.

La falta de justificación y del informe pertinente en el plazo que se señale producirá la automática anulación o la obligación de devolver la cantidad subvencionada y no justificada y, en todo caso, la inhabilitación para nuevas subvenciones.

*10. Notificación.*

La notificación de la resolución se hará mediante el Boletín Oficial de Gipuzkoa de acuerdo con el artículo 11 de las Bases Reguladoras, y sustituirá a la notificación individualizada.

EK\CV GAO-I-2024-01178

III. ERANSKINA

ZUEKIN BERPIZTU

*Kalearen mailan dauden espazio hutsak dinamizatuz merkataritzaren sektorea biziberritzeko diru-laguntzen oinarri espezifikoak eta 2024ko deialdia –ZuEKIN Berpiztu–.*

1. *Xedea.*

2024ko aurrekontu ekitaldiari dagokion deialdi honen xedea kalearen mailan dauden espazio hutsak dinamizatuz merkataritzaren sektorea biziberritzeko diru-laguntzak emateko arauak ezartzea da.

Diru-laguntza honen bitartez, Zumarragan dauden baina merkataritza-jarduerarik ez duten lokal komertzialen jabeek Zumarragako Udalari lagako diote erakusleihoa; horren helburuak honakoak izango dira:

— Erakusleihoa edertzea, binilo apaingarriak jarriz horretarako. Horietan mezuak eta irudiak sartuko dira, hain zuzen lokala bera eta Zumarragako herriko leku edo toki gogoangarriak okupatzea sustatzearren.

— Espazioa erakusleiho gisa erabiltzeko lagatzea, herrian jarduera duten komertzioentzat, espazioa egokituta.

— Zumarragan produktu, zerbitzu edo negozio eredu bat probatu nahi duten ekintzaile edo enpresentzako pop-upak.

— Eskulangile, artista eta sortzaileentzako espazioa izatea, bere produktuak azaldu eta promozionatu ahal izan ditzaten.

— Lehen sektoreko enpresek beren produktuak erakutsi eta sustatu ahal izateko espazioa.

Zumarragako Udalak bitartekari lana egingo du lokal hutsen jabeen eta erakusleihoak erabiltzen dituzten dendarien artean, bi hitzarmen baliatuz horretarako.

2. *Onuradunak.*

Laguntza hauen onuradun izan ahalko dira pertsona fisikoak edo juridikoak eta ondasun komunitateak, betiere Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 13.2 artikuluak ezartzen dituen galarazpenetako batek berak ere eragiten ez badie. Onuradunen bi profil ezarri dira:

a) Zumarraga udalerrian hutsik dauden merkataritza-lokal jabe diren pertsonak.

b) Hutsik dagoen lokalaren erakusleihoa erabiltzaile izan daitezkeen merkatari, ekintzaile, eskulangile, lehen sektoreko enpresa edo hauek ordezkatuko dituen elkarteak.

Oinarri hauen ondorioetarako, baldintza berezi hauek definitzen dira:

— Epea.

Lagapenaren epea 6 hilabetekoa izango da gutxienez, ZuEKIN Berpiztu programari atxikitzeko eskaera udalari aurkezten zaion datatik kontatzen hasita. Edonola ere, lagapen kontratua aurrez ezeztatu ahal izango du jabeak, lokala saltzea fortunatuz gero, edo jarduera komertzial bat instalatzeko alokatzen duenean.

— Aplikazio esparrua.

Programan aurreikusten diren diru-laguntzak hutsik eta inolako jarduera komertzialik gabe dauden lokaletara bideratuko dira.

— Udalaren betekizunak.

Zumarragako Udalak hitzarmen hauek izenpetuko ditu:

Lokal hutsaren jabearekin.

Lokal hutseko erakusleihoa erabiliko duen merkatari, ekintzaile, eskulangile, lehen sektoreko enpresa edo hauek ordezkatuko dituen elkarteak.

ANEXO III

ZUEKIN BERPIZTU

*Bases específicas y convocatoria 2024 de concesión de subvenciones a revitalizar el sector comercial a través de la dinamización de espacios vacíos que se encuentran a nivel de calle –ZuEKIN Berpiztu–.*

1. *Objeto.*

Es objeto de la presente convocatoria correspondiente al ejercicio presupuestario 2024 la regulación de la concesión de subvenciones dirigidas a revitalizar el sector comercial a través de la dinamización de espacios vacíos que se encuentran a nivel de calle.

Por medio de esta subvención, las personas dueñas de locales comerciales sitos en Zumarraga que no tengan actividad comercial cederán el escaparate al Ayuntamiento de Zumarraga con objeto de:

— Embellecimiento del escaparate a través de vinilos decorativos que incluirán mensajes/imágenes relacionadas con la promoción de la ocupación del propio local y sitios o lugares emblemáticos del municipio de Zumarraga.

— Cesión de espacio para uso como escaparate para comercios en activo del municipio, con adecuación del espacio.

— Pop-ups para emprendedores o empresas que quieran tantear un producto, servicio o modelo de negocio en Zumarraga.

— Espacio para artesanos, artistas y creativos para exponer y promocionar sus productos.

— Espacio para que empresas del primer sector puedan exponer y promocionar sus productos.

El Ayuntamiento de Zumarraga hará de intermediario entre los dueños de los locales vacíos y los comerciantes que utilicen los escaparates por medio de dos convenios.

2. *Personas beneficiarias.*

Podrán ser beneficiarios/as de estas ayudas, las personas físicas o jurídicas y comunidades de bienes que no incurran en ninguna de las prohibiciones que se establecen en el artículo 13.2 de la LGS. Se establecen dos perfiles de personas beneficiarias:

a) Personas que sean dueñas de locales comerciales vacíos del municipio de Zumarraga.

b) Comerciantes, emprendedores, artesanos, empresas del primer sector o asociaciones que les representen, usuarias del escaparate del local vacío.

A los efectos de las presentes Bases, se definen las siguientes condiciones particulares:

— Plazo.

El plazo de cesión será de al menos 6 meses, que se empezará a contar desde la fecha de la presentación en el Ayuntamiento de la solicitud de adhesión al programa ZuEKIN Berpiztu. En cualquier caso, el contrato de cesión podrá resolverse anticipadamente por parte de la persona propietaria en el caso de venta del local, o en el caso de alquiler del mismo para la instalación de una actividad comercial.

— Ámbito de aplicación.

Las subvenciones previstas en el programa se destinarán a locales vacíos y sin ninguna actividad comercial.

— Obligaciones del Ayuntamiento.

El Ayuntamiento de Zumarraga suscribirá los siguientes convenios:

Con la persona dueña del local vacío.

Con el comerciante, emprendedor, artesano, empresa del primer sector o asociación que les represente, que utilizará el escaparate del local vacío.

EK\CV GAO-I-2024-01178

Erakusleihoa binilo apaingarri bitartez edertzeko erabiltzen bada, bakar-bakarrik lokalaren jabearekin egingo da hitzarmena. Udala arduratuko da binilo apaingarriak eskuratzeaz.

Bestelako kasuetan, lokal hutsaren jabearekin hitzarmena izenpetu ondoren, udalak Zumarragako dendari bati lagako dio lokala, eta beste hitzarmen bat izenpetuko du horretarako, dendari horrek lokaleko erakusleihoa erabil dezan.

Alderdi biek hitzarmena amaitutzat ematen dutenean, udalak jabeari itzuliko dio lokal hutsa; akatsik baldin badago, konponketak udalaren kargura izango dira.

Horretarako, eta lokalaren harrera egin aurretik, udal zerbitzu teknikoek lokalaren egoera jasotzeko akta egingo dute.

Jabearen betekizunak.

Udalaren bitartez erakusleihoa laga dion pertsonari aukera emango dio lokalean behar beste aldiz sartzeko, bai erakusleihoa mantendu ahal izateko, berritzeko edo bertan diren gauza edo izakinetako batzuk kentzeko.

Lokala alokatzeko edo saltzeko iragartze biniloak Udalak emango ditu; jabeak ezingo du eredu horiez aparteko iragarkirik jarri.

Udalaren bitartez lokalaren lagapena jaso duenaren betekizunak.

Erakusleihoa egokitu beharko du.

Beharrezko su-itzalgailuak instalatu beharko ditu, udalaren zerbitzu teknikoek ezarritako irizpideekin bat.

Erakusleihoko kontsumo elektrikoak eragin gastua bere gain hartuko du. Erakusleihoak ez badu kontsumo-kontagailurik, alderdiek elkarrekin adostuta erabakitzen dutenera joko da.

Ezingo du inolako jarduera ekonomikorik garatu erakusleihoa dagoen lokalean; bere jarduera erakusleihoa instalatzera mugatuko da.

Erakusleihoan agerian jartzen duenaren kalitatea zaindu beharko du.

Aseguru poliza bat kontratatu beharko du, ezbeharra gertatuz gero lokalaren balioa eta erakusleihoko instalaziotik erator daitekeen erantzukizun zibila bermatzeko.

Kontratua amaitu ondoren, lehen zegoen egoera berean utzi beharko du lokala. Horretarako, eta lokalaren entrega egin aurretik, udal zerbitzu teknikoek lokalaren egoera jasotzeko akta egingo dute.

*3. Eskabideak eta aurkezteko epea.*

Ordezkariak edo pertsona arduradunak egin beharko ditu eskariak, eta Udalak prestatutako eskaera-eredu ofiziala erabiliko du horretarako.

Eskaera eta dokumentazio osagarria Internet bidez aurkeztu beharko dira Zumarragako Udaleko egoitza elektronikoko dirulaguntzen ataritik (https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/7.00/Default.aspx?entidad=80) eta, salbuespen modura, paperean Udaleko Erregistro Orokorrean herritarrak hartzeko ordutegiaren barruan edo korreo zertifikatu bidez.

Laguntza eskaerak, oinarri hauek argitaratu eta biharamunetik aurrera aurkeztu ahal izango dira eta 2024ko irailaren 30ean amaituko da.

Eskariak osatzeke baldin badaude, 10 eguneko epea izango da falta dena osatzeko, eta epe hori eskaria osatu gabe igarotzen bada, artxibatu egingo da eskaera, beste inolako izapiderik egin gabe.

Aurreikusitako proiektu kopurura iritsi ezean, eta lerro honetara bideratutako partida agortu bitartean, udalak aukera izango du aurkezpen epea luzatzeko.

En el caso de que la utilización del escaparate sea para embellecimiento del escaparate a través de vinilos decorativos, únicamente se suscribirá un convenio con la persona dueña del local. El Ayuntamiento se encargará de facilitar los vinilos decorativos.

En el resto de los casos, una vez suscrito el convenio con la persona dueña del local vacío, cederá dicho local a un comerciante de Zumarraga, suscribiendo otro convenio, para que éste utilice el escaparate de dicho local.

Al dar por finalizado el convenio entre las dos partes, el Ayuntamiento devolverá el local vacío a su dueño; si hubiera desperfectos la reparación correría a cargo del Ayuntamiento.

Para ello, con anterioridad a la recepción del local se levantará acta por parte de los servicios técnicos municipales en el que se recoja el estado del local.

Obligaciones de la persona propietaria.

Garantizará a la persona a la que ha cedido el escaparate por mediación del ayuntamiento la entrada al local cuantas veces lo requiera para el mantenimiento del escaparate, para su renovación o para retirar parte de las existencias existentes en el mismo.

Los vinilos para el anuncio del alquiler o venta del local serán facilitados por parte del Ayuntamiento, sin que la persona propietaria pueda instalar anuncios ajenos a esos modelos.

Obligaciones de la persona cesionaria del local por medio del ayuntamiento.

Deberá acondicionar el escaparate.

Instalación de los extintores necesarios, de conformidad a los criterios establecidos por los servicios técnicos del Ayuntamiento.

Asumirá el gasto de consumo eléctrico del escaparate. Caso de que no exista contador de consumo para el escaparate se estará a lo que las partes acuerden de mutuo acuerdo.

No podrá desarrollar actividad económica alguna en el local en el que se encuentra el escaparate, limitando su actividad a la instalación del propio escaparate.

Deberá preservar la calidad la muestra expuesta en el escaparate.

Contratación de una póliza de seguros que garantice, en caso de siniestro, el valor del local y la responsabilidad civil derivada de la instalación del escaparate.

Una vez finalizado el contrato, deberá dejar el local en las mismas condiciones en que se encontraba. Para ello, con anterioridad a la entrega del local se levantará acta por parte de los servicios técnicos municipales en el que se recoja el estado del local.

*3. Solicitudes y plazo de presentación.*

Las solicitudes deberán formalizarse por parte del representante legal o persona solicitante, en el modelo de instancia oficial elaborado por el Ayuntamiento.

La solicitud y la documentación complementaria deberán presentarse obligatoriamente vía Internet, a través del portal de subvenciones ubicado en la sede electrónica del Ayuntamiento de Zumarraga (https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/7.00/Default.aspx?entidad=80), y excepcionalmente en papel mediante su entrega en el Registro General del Ayuntamiento, dentro de los horarios de atención al público, o por correo certificado.

El plazo de presentación de las solicitudes de obtención de ayudas comenzará al día siguiente a la publicación de estas bases y finalizará el 30 de septiembre de 2024.

En el caso que las solicitudes estuvieran incompletas, se concederá un plazo de 10 días para la reparación de la carencia y, una vez transcurrido este plazo sin que se haya completado la solicitud, se procederá al archivo de la misma sin más trámites.

En caso de no alcanzar el número de proyectos previstos y mientras no se agote la partida destinada a esta línea, el Ayuntamiento se reserva la posibilidad de ampliar el plazo de presentación.

EK\CV GAO-I-2024-01178

*4. Ekarri beharreko agiriak.*

Eskabideekin batera, Zumarragako Udalak ezarritako eta 2023ko otsailaren 10eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (28. zk.) argitaratutako Dirulaguntzen Programen Oinarri Arautzaileen 6. artikuluan ezarritako dokumentazioa aurkeztu beharko da.

6. artikuluak ezartzen duen bezala, espedienteak izapidetzen diren bitartean, udalak dokumentazio hau eskatuko die gainerako administrazio publikoei (Administrazio Prozeduraren 39/2015 Legearen 28.2 artikulua), datuen elkarreragingarritasunerako Nisae plataformaren bidez:

— Pertsonaren eta/edo erakundearen nortasun-datuak kontsultatzea eta egiaztatzea.

— Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekiko betebeharrak eta ordainketak egunean dituen kontsultatzea.

— Dagokion foru-ogasunarekiko betebeharrak eta ordainketak egunean dituen kontsultatzea.

Zumarragako Udalak berak ofizioz eskatuko du honako hauek egiaztatzen dituen informazioa:

— Zumarragako Udalarekin zergen eta zehapenen ordainketa egunean izatea.

— Udalerrian erroldatuta egotearen datuak.

— Deialdi honen urteko lokalaren OHZ ordaintzea.

— Dirulaguntza ordaintzeko kontu-korrontearen zenbakia, lehenago jakinarazi badu.

Interesdunak eskubidea du Zumarragako Udalak Nisae elkarreragingarritasun-plataformaren bidez gainerako administrazio publikoetan agertzen diren datuak eskuratzeari aurka egiteko (Administrazio Prozeduraren 39/2015 Legearen 28.2 artikulua).

Kasu horretan, onuradunak aurka egiteko arrazoiak justifikatu beharko ditu, eta dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu (Datuak Babesteko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 21. artikulua).

Gainera, honako dokumentazio hau jaso beharko dute:

— Jabeek lokalak udalari uzteko egiten duten eskaeran, lokalaren identifikazioa eta haren egoera adierazi beharko dira.

— Erakusleihoa erabili nahi duten merkatari, ekintzaile, eskulangile, lehen sektoreko enpresa edo elkarteen eskabidean erakusleihoari eman nahi zaion establezimenduaren edo erabileraren identifikazioa eta jarduera agertu beharko dira.

*5. Erabakia.*

Ekonomia Sustapeneko, Toki Garapeneko eta Berrikuntzako sailak izapidetuko ditu eskabideak. Sail horren zerbitzu teknikoak arduratuko dira dagozkion proiektuak aztertzeaz eta ebaluatzeaz, eta balorazio-txostena egingo dute.

Erabakia Zumarragako Udaleko zinegotzi ordezkariaren dekretu bidez ebatziko da, txosten teknikoak proposatuta.

*6. Eskabideak baloratzeko irizpideak.*

Diru-laguntza eskabideak baloratzeko, oinarri espezifiko hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatuko da, bai eta diru-laguntzen eskabideak epe barruan eta behar bezala aurkeztu direla ere.

*7. Eman beharreko dirulaguntzen gehieneko zenbatekoa eta diru kopuru horren izaera.*

ZumarragarEKIN diru-laguntza programan txertatzen da ZuEKIN Berpiztu lerroko diru-laguntza deialdi hau eta gauzatzera bideratutako kopurua 1.500 €koa da, 2024ko ekitaldiari dagokiona.

*4. Documentación a aportar.*

Las solicitudes deberán ir acompañadas de la documentación establecida en el artículo 6 de las Bases Reguladoras de los Programas de Subvenciones establecidos por el Ayuntamiento de Zumarraga y publicadas en el Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 28 de 10 de febrero de 2023.

Tal y como establece el artículo 6, durante la tramitación de los expedientes, el Ayuntamiento recabará del resto de Administraciones Públicas (artículo 28.2 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo), a través de la plataforma de interoperabilidad de datos Nisae, la siguiente documentación:

— Consulta y verificación de datos de identidad de la persona y/o de la entidad.

— Consulta de estar al corriente de obligaciones y pagos frente a la Tesorería General de la Seguridad Social.

— Consulta de estar el corriente de obligaciones y pagos frente a la Hacienda Foral correspondiente.

Será recabada directamente de oficio por el propio Ayuntamiento de Zumarraga, la información que acredite:

— Estar al corriente del pago de tributos y sanciones con el Ayuntamiento de Zumarraga.

— Los datos de empadronamiento en el municipio.

— El pago del IBI del local correspondiente del año de la presente convocatoria.

— El número de cuenta corriente para el pago de la subvención si ya lo hubiera comunicado anteriormente.

La persona interesada tiene derecho a oponerse al acceso, a través de la plataforma de interoperabilidad Nisae, por parte del Ayuntamiento de Zumarraga a los datos que figuren en el resto de las administraciones Públicas (artículo 28.2 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo).

En ese caso, el beneficiario deberá justificar las razones de su oposición y aportar los datos o documentos correspondientes (artículo 21 del Reglamento (UE) 2016/679 de Protección de Datos).

Además, deberán contener la siguiente documentación:

— En la solicitud realizada por los dueños interesados en dejar los locales al ayuntamiento para la cesión de su uso, deberá figurar la identificación del local y la situación en la que se encuentra.

— En la solicitud de los comerciantes, emprendedores, artesanos, empresas del primer sector o asociaciones interesadas en utilizar el espacio del escaparate deberá figurar la identificación y la actividad del establecimiento o uso que se quiera dar al escaparate.

*5. Resolución.*

Las solicitudes serán tramitadas por el departamento de Promoción Económica, Desarrollo Local e Innovación, cuyos servicios técnicos serán los encargados del examen y evaluación de los proyectos correspondientes, emitiendo un informe de valoración.

La resolución de la concesión se realizará a través de Decreto del o de la concejala delegada del Ayuntamiento de Zumarraga a propuesta del informe técnico.

*6. Criterios de valoración de las solicitudes.*

Para valorar las solicitudes de ayuda se comprobará el cumplimiento de los requisitos establecidos en estas bases específicas y la presentación en plazo y forma de las propias solicitudes de subvención.

*7. Importe máximo subvenciones a conceder y carácter de dicha dotación.*

La cantidad destinada a la ejecución de la presente Convocatoria de Subvenciones se enmarca en el Programa de Subvenciones ZumarragarEKIN en la línea ZuEKIN Berpiztu, cuyo importe asciende a 1.500 € correspondiente al ejercicio de 2024.

EK\CV GAO-I-2024-01178

7.1. Jabeei laguntzaren emateko gehieneko zenbatekoa izango da:

Erakusleihoaren erabilera lagatzen duen jabeak 200,00 euroko diru-laguntza jasoko du.

7.2. Lagapen-hartzaileei laguntzaren emateko gehieneko zenbatekoa izango da:

Zumarragako Udalaren bitartez lokalaren lagapena jasotzen duen pertsonak erakusleihoa egokitzeko kostuaren % 100eko diru-laguntza jasoko du, baldintza hauetan:

— Gehienez 2 metrorainoko erakusleihoak (beiraren zabalera izango da erreferentzia): 600 euroko diru-laguntza emango da.

— 2 metrotik gora diru-laguntza osagarria emango da, 65 €/m; dena den, diru-laguntzak ezingo du 800 eurotik gora egin guztira.

Laguntzen kostuan ondoko kontzeptuak sartuko dira, besteak beste: erakusleihoa egokitzeko obrak, instalazio elektrikoa egokitzea, su-itzalgailuen kostua, aseguru poliza.

7.3. Erakusleihoak edertzeko laguntzaren emateko gehieneko zenbatekoa izango da:

Merkataritzaren paisaia hobetzera bideratzen diren lokaletan, neurri horiek garatzeko beharrezko kostuak udalak hartuko ditu bere gain.

Laguntza ekonomikoak emate honetan, aurrekontuko kreditua agortu ondoren ere erantzun gabeko eskaerarik baldin badago, eta betiere organo eskudunak horrela erabakitzen badu, diru-laguntzak jasotzen dituen aurrekontuko partida handitu ahal izango da, hain zuzen erabaki gabeko eskaerei erantzun ahal izatearren.

Era berean, diru laguntza lerro bakoitzeko soberakinak zenbatekoa handitu behar duten lerroetara mugitu ahal izango dira.

Laguntza horiek bateragarriak izango dira beste edozein administraziotatik edo erakunde publiko zein pribatutatik (nazionalak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko erakundeetakoak) helburu bererako datozen gainerako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin, betiere diruz lagundutako jardueraren kostua gainditzen ez bada.

*8. Dirulaguntza ordaintzeko era eta epeak. Aurrerakinen aukera.*

Jabearen kasuan, udalarekin hitzarmena sinatu ondoren, diru-laguntza ordainduko da.

Lagapen-hartzaileei, diru-laguntzak bi zatitan ordainduko dira:

— Onartu den kopuruaren % 60, justifikatu beharreko aurrerakin gisara, onuradunak emandako diru-laguntza onartu eta gero eta gehienez ere hil bateko epean, akordioa hartuko den egunetik kontatzen hasita.

— Gainerako % 40, organo eskudunak diru-laguntzaren likidazioa onartu eta gero, hau da, diruz lagundutako programa edo jardueraren dokumentazioa eta justifikazio osoa eta zuzena entregatu eta gero.

Aurkeztutako likidazioa hasieran aurkeztu ziren gastuen aurrekontua baino txikiagoa izanez gero, gutxitu egingo da diru-laguntza benetan burutu den portzentaje mailara.

*9. Hasiera eta exekuzio epea eta dirulaguntza justifikatzeko epeak eta erak.*

Diruz lagun daitezkeen jarduerak hasteko eta amaitzeko epea 2023eko azaroaren 1etik 2024ko urriaren 31ra egindakoak izango dira, biak barne.

Onuradunak 2024ko azaroaren 25ra arteko epea izango du, eman zitzaion diru-laguntzaren xedea bete duela justifikatzeko.

7.1. El importe máximo de la ayuda que podrá concederse al propietario:

El propietario que ceda el uso del escaparate recibirá una subvención de 200,00 €.

7.2. El importe máximo de la ayuda que podrá concederse a la persona cesionaria:

La persona que recibe la cesión del local por medio del Ayuntamiento de Zumarraga, recibirá una subvención del 100 % del costo de adecuación del escaparate, en las siguientes condiciones:

— Escaparates de hasta 2 metros como máximo (la referencia será el ancho del cristal): se concederá una subvención de 600 €.

— A partir de 2 metros, se concederá una subvención complementaria de 65 €/metro sin que la subvención total puede exceder de los 800 €.

En el coste de las ayudas se incluirán, entre otros, los siguientes conceptos: obras de adecuación del escaparate, adecuación de la instalación eléctrica, costo de los extintores, póliza de seguros.

7.3. El importe máximo de la ayuda que podrá concederse para embellecimiento de escaparates:

En los locales que se destinen a la mejora del paisaje comercial, los costes necesarios para desarrollar dichas medidas serán asumidos por el Ayuntamiento.

